

Euskadiko Liburutegien Aholku Batzordea sortzeko dekretua onartu du Eusko Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak Euskadiko Liburutegien Aholku Batzordea sortzen eta arautzen duen dekretua onartu du gaur. Dekretu honek Euskadiko Liburutegien Legeak eratu zuen liburutegien aholku batzordea arautzen du eta bere sorrera ahalbideratzen du zereginak eta osaketa zehaztuz.

Euskadiko Liburutegien Aholku Batzordea arautzen duen dekretuak bere osaketa, aukeraketa modua, antolakuntza eta funtzionamendua zehazten ditu. Euskadiko Liburutegien Aholku Batzordea Euskadiko Liburutegi Legeak sortu zuen Jaurlaritzaren Kultura Sailari atxikitako aholkularitza erakunde gisa eta bere zeregin nagusia Euskadiko Liburutegi Legeak aurreikusten dituen alorretan aholku ematea izango da.

Osaketa aldetik, Euskadiko Liburutegien Aholku Batzordea 13 lagunek gehi idazkariak osatuko dute. Presidentzia Kultura sailburuordearena izango da eta presidenteordea Kultur Ondarearen zuzendaria izango da. Hauekin batera beste 11 kide izango dira, hiru foru aldundiek proposatuko dituzte, beste bat Eudel Euskal Udalen Elkarteak eta beste zazpiak liburutegi alorreko pertsonen artean aukeratuko dira. Azkenik idazkaria hizpide baino botorik gabeko kidea izango da.

Euskadiko Liburutegien Aholku Batzordea osatzeko prozesua dekretua Euskal Herriko Agintari Aldizkarian argitaratu eta indarrean sartu eta hilabetera jarriko da abian.